

Euskarazko artikulua Erdi Aroko agiri bilduma batean

(Basque articles in a document of the Middle Age)

Manterola Agirre, Julen

EHU/UPV. Euskal Herriko Unibertsitatea. Letren Fak. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Unibertsitateko Ibilbidea, 5.

01006 Vitoria – Gasteiz

julen.manterola@ehu.es

Jaso: 2007.12.28

BIBLID [1137-4454 (2008), 23; 371-379]

Onartu: 2008.09.17

Lan honetarako Erdi Aroko Donemiliaga Kukullako kartularioa izango dugu oinarri. Agiri horietan artikulutzat jotzen ditugun morfemak izango ditugu aztergai. Artikulu singularrak eta pluralak bereiziko ditugu: singularretan artikulua izenari gehitzeak ekartzen dituen bokal bilkurak nola ebazten diren ikusiko dugu; pluralei dagokienez, erakusle jatorria aldarrikatuko dugu haientzat.

Giltza-Hitzak: Erakusleak. Artikulua. Donemiliaga Kukullako kartularioa. Diakronia.

Para el presente trabajo nos basamos en el cartulario medieval de San Millán de la Cogolla. Nuestro objeto de estudio serán los morfemas de estos documentos que consideramos artículos. Distinguiremos artículos singulares y plurales. Con respecto a los singulares veremos cómo se resuelven las uniones de vocales resultantes de añadir el artículo al nombre; en los plurales, defenderemos su origen demostrativo.

Palabras Clave: Demostrativos. Artículo. Cartulario de San Millán de la Cogolla. Diacronía.

Pour ce travail, nous nous basons sur le cartulaire médiéval de San Millán de la Cogolla. L'objet de notre étude concernera les morphèmes de ces documents que nous considérons des articles. Nous distinguerons les articles singuliers et pluriels. En ce qui concerne les singuliers, nous verrons comment sont résolues les unions de voyelles résultant de l'addition de l'article et du nom ; dans les pluriels, nous défendrons leur origine démonstrative.

Mots Clé : Démonstratifs. Article. Cartulaire de San Millán de la Cogolla. Diachronie.

1. ATARIKOAK

Aurreko lan bateko eranskinean (Manterola 2006) zenbait artikulua arkaikoren berri eman genuen, ordura arte euskararen diakroniazko ikerketetan oharkabean pasatuak zirenak. Horien izaera arkaikoa hasperenaren gordetzean zetzan, hots, *-ha* gisako artikulua genituen.

Orduko hartan Michelenaren *Textos Arcaicos Vascos*-eko (Michelenak 1990 [1964]) testu zaharren lekukotza izan genuen oinarri. Michelenak, era berean, Serranoren ediziotik ekarri zituen datuak (Serrano 1930). Oraingo honetan XII. mende bukaerako Donemiliaga Kukullako kartularioa zuzen-zuzenean kontsultatu ahal izan dugu, beronen agirien argazki digitalizatuak izan baititugu eskura¹.

Lan honetan Erdi Aroan lekukotuak ditugun euskal artikulua aztertuko ditugu. Batetik, artikulua singularrekin gerta daitezkeen zenbait gertakari fonetiko ezarriko dugu azterketaren ikusmiran; bestetik, nik artikulua definitu plural gisa izendatuko dudan artikulua berri eman nahi izango dut, Erdi Aroko lekukotzek horretarako bidea ematen dutela sinetsita.

Lana, beraz, horrela banatua dago: lehenik, atari honen ondoko 2. atalean artikulua gainera nire ikuspegia zein eremu teorikotan ezartzen dudan agertuko dut; horrela gure aztergaiaren mugak zehaztuko ditut. Hots, zer aztertuko dudan argituko dut. 3. atalean Erdi Aroko lekukotzak eurak izango ditut hizpide; bi azpialde nagusi izango dira: artikulua singularren gorabeherentzako bat, eta pluralentzako bestea. Azkenik, 4. atala izango den horretan, lan honetako ondorioak laburbilduko dira.

2. ARTIKULUA BAT ZER DEN. AZTERGAIA ZEHAZTEN

Artikulua zer jotzen dugun zehazteko ikuspegi diakronikoa hartuko dugu aintzat. Greenbergek 1978ko bere lan batean artikulua definituen bilakabide diakronikoaren faseen berri eman zuen (Greenberg 1978); artikulua, nolabait esateko, aurreko sintagmari itsatsi zaion erakuslearen oinordeko dira, eta erakusleetatik artikulurako bide horren xehetasun zenbait ematen du Greenbergek. Geroztik, Himmelmann hizkuntzalariak (2001) ideia hori garatu du, berak *D-element* deitzen dituen elementuen taxonomia eskainiz; erakusleetatik artikulurako ibilbide diakronikoan aurki ditzakegun morfema beraren izaera diferenteak bilatzeko erabiltzen den terminoa da D-elementuarena. Morfema bera continuum diakroniko bakar batean ulertzeko saio gisa ere uler daiteke. Egungo euskal artikulua D-elementu horien ezaugarriak betetzen ditu erabat, erakusle batetik eratorzen dela uste baita aspaldidanik, Michelenak (1971), beste hainbaten artean, esan izan duen bezala. Hartara, honen antzekoa izan ahal izan da artikulua bilakabidea:

1. Eskerrak eman nahi dizkiot David Peterson historialariari agiri hauen bertsiu digitala hain eskuzabal uzteagatik.

1) *etxe *ha(r) > etxe *ha > etxeha > etxea*

Gaur egun ere mendebaldeko euskaretan gordetzen da *a* erakusle zaharra, beste euskalkietan *hura* (nire ustez berantiarra) den bitartean.

Kontuak laburbiltzeko, hala esan genezake: artikulua bat inoiz erakusle izandako elementu baten ondorio diakronikoa da. Nahi nuke “erakusle” diodanean lan honen irakurleak edozein erakusle izatea gogoan, nire ustez pluraleko deklinabidean ageri den *-eta-* atzizkia ere garai bateko (*eta* egungo ekialdeko zenbait hizkeretako) *hefa-* pluraleko erakuslearen oinordekoa baita.

2.1. Artikuluaren diakronia aztertzeko bide bat: artikuluaren zabaltzea

Arestian aipatu ditudan lanetan artikuluaren zabaltze progresiboa aztertzen da besteak beste, zein testuinguru morfosintaktikotara hedatzen den lehenago eta zeinetara ondoren. Hainbat hizkuntzatan egindako lana da hau (Company 1991, Cyr 1993, Huang 1999, Laury 1993, Putzu 2005), baina euskararentzako oraindik egin gabeko lana dugu hau, han hemenka egindako oharra ahantzi gabe (Irigoyen 1978, Michelena 1987: 366). Hona lan honen faltaren lekuko den Michelena aipua (1969[1987: 1994]):

Así, el ejemplo del artículo en los nombres propios –y por inferencia, en los comunes- merecería un estudio detenido que sigue sin hacerse, por todo lo que toca a la toponimia moderna y medieval. Pueden señalarse, por ejemplo, la alternancia de formas determinadas e indeterminadas en un mismo nombre, en el mismo documento.

Guk, gure aldetik, 2005eko lan argitaragabeen halako zenbaiten berri eman genuen (Manterola 2005), XIII. mendean aldaketa prozesua lekukotzen dutenak Nafarroan:

2) a. Nagusi: *G. Esparçaco, Maria Irançuco, Dota Ovanosco, Garcia Çubirico*
b. Gutxi batzuk: *Açeari Guruciricoa*²

Ageri da, beraz, jatorria adierazten zuten *-kodun* sintagmetan inoiz sartu behar izan zuela artikulua, nahiz ekialdean, Zuberoan kasurako, egun ere artikulurik gabekoak aditu daitezkeen (*ni Mauleko nüzü*). Ez da, baina, artikuluaren hedatzearen xehetasun hauetaz arduratuko lan hau, Michelena aipatutako egin beharra etorkizun hurbilerako atzeratuko baitugu. Ondoko atalean azalduko dugu Erdi Aroko artikuluaren lekukotasunen zein alderdi aztertuko dugun.

2.2. Artikuluak eragiten dituen hots bilkuren ebaztea

Artikuluaz ari garela izan da euskararen gaineko ikerlanetan beste jomugarik: artikulua izenaren kodari itsasten zaionean, aurreko izenaren bokalen nolakota-

2. Hauek Michelena *Textos Arcaicos Vascosen* aurki daitezke.

suna aldatua gertatu izan da (*etxea > etxia*), edo zenbait kontsonante epentetiko sortu izan da hitza eta artikulua artean (*mendia > mendiya*); gertakari hauen taxonomiarako hortxe dugu Hualde eta Gaminderen lana (1998). Guk amaieran *-a* bokala duten hitzei begiratuko diegu, *alaba* edo *aldapa* bezalakoei.

Labur eman dezagun *-a* bukaera duten hitzei artikulua gehitzen zaienean ze emaitza izaten dugun euskara historikoan; ikus dezakegunez, lau estrategia diferente erabili izan dira hizkeraren arabera:

- 3) a. Mendebaldean **a+a>ea** *alabea*
- b. Erdialdean **a+a>aa>a** *alabaa, alaba*
- c. Zaraitzun **a+a>ara** *alabara* (*egiara* Etxeparek [1545] 1995: 107)
(*oinzolar* Oihenartek [1657] 2003: 130)
- d. Zuberoan - Erronkarin **a+a>á** *alabá*

Beltxean diren horiei erreparatuko diegu bereziki, horien berri ematen baitigute, ematekotan, Erdi Aroko lekukoek. Galdera ximplea da: noizkoak dira *a + a* bilkurak “apurtzeko” erabiltzen diren estrategia ezberdin hauek? Erantzunerako, jakina, ezinbestean lekuko dokumentatuen beharra dugu, ezer baino gehiago auzi enpirikoa baizik ez baita hau. Nik estrategia hauen lekukotasun zaharrenak aurkitu ditudala uste dut. Halaxe erakusten saiatuko naiz hurrengo atalean, hirugarrenean.

3. ERDI AROKO ARTIKULUA

Hasieran esan bezala, singularreko artikulua (*-a*) arituko naiz hemen, baina baita nik artikulutzat jotzen dudana pluraleko artikulua ere (*-eta-*), goian aipatutako ikuspegiaren arabera D-elementua litzatekeena (hots, erakusle batetik datorren morfema). *Habaunzaha*, *Elhorzahea* eta *Errohet*a bezalako lekukoak izango ditugu hizpide, beraz.

3.1. Artikulu singularra: *-aa* bilkurak

3.1.1. *a + a > ea*. *Hauaunzia* eta *Elhorzahea*

Gorago aipatu dudana lan batean (Manterola 2006), *-ha* artikuludun lekukotatzen batzuk argitara eman nituen; ekar ditzadan hona, datu horiek gaur aztergai dugunaren lagungarri izango direlakoan:

- 4) *Hillarrazaha*, *Artazaha*, *Otaza*ha, *Uda*ha (1025), *Elhorza*ha (1129)

Orduan ematen nuen analisiari eusten diot 4)ko adibide hauentzako, hots, toponimo horien amaieran ikusten dugun *-ha* horiek artikulua direla, bere garai zaharretan erakusleatarik gorde behar zuten hasperena zutenak; ez da kasualitatea, orduan ere halaxe uste nuen, *-a* amaieradun toponimoetan gordetzea nagusiki artikulua forma hasperenduna, hartara bi *a* horien bilkura (hitz

amaierarena eta artikulua) saihesten baitzen. Jo dezadan orain beste adibide batzuk argitzera:

5) *Elhorzahea* (1025), *Hauaunzia* (1089)

5)eko hauetan artikulurekin sortu zen *-aa* bilkura ebazteko *a + a > ea* disimilazioa ikusten dut. *Elhorzahea*³ adibidearen kasuan, artikulua gehitzearen bi emaitza posible aurkitzen ditugu toponimo berean, hau da, hasperenaren gordeztea eta bokal disimilazioa; 4)n ikusi ahal izan dugun bezala, badugu disimilaziorik gabeko *Elhorzahea*-ren bikotea, 1129ko agiri batean ageri den *Elhorzaha* baitugu lekukotua. Zoritxarrez eta datu gehiagoren faltan, ezin zehatz jakin nola gertatu zen bi estrategia diferente hauen arteko talka, gainjartze eta azkenik ordezkatzeta. Dakigun bakarra zera da, disimilazioarena izan dela gaur egun arte bizirik iraun duen bakarra, dela bilakabide fonologiko gisa, dela arau morfonologiko gisa; disimilazio honen izaera zehatzaren argigarri, ikus Oñederra (2005).

Jo dezagun orain 5)eko bigarren adibidearekin, 1089ko *Hauaunzia*. Toponimo honen amaierako *-ia* disimilazioaren emaitza gisa ikusi nahi dut nik, bi disimilazioaren emaitza, zehatzago esateko: *a + a > ea* eragiten duena, eta *ea > ia* disimilazioa. Duda izan genezake, beharbada *Hauaunzia* bezalako toponimo bat ez ote den berez, bere osoan, osagai bakarrekoa, inongo deklinabiderik gabekoa: uste honek, nire irudiko, 6)n ematen ditudan lekukotasunekin oinarria galtzen du:

6) a. *Habaunza* (1025)

b. *Ahabaunçaa*, *Habaunçaha* (1066). Becerro de Leyre (Ciérvide 1977)

Donemiliagako agiritan badugu, 6)a. adibidean ikus daitekeen bezala, *-ia* bukaera gabeko aldaera, nik artikulua gabekotzat *-edo*, zergatik ez, ez baita ezinezko: disimilaziorik gabeko eta *-aa* bilkuraren erabateko asimilazioduntzat-joko dudana. Toponimo honek azaltzen duen koadroa margotzen bukatzeko, hortxe ditugu Nafarroako lekukotasun horiek, 6b.n ikus daitezkeenak: horietan aldaera artikuludunak ditugu, Habaunzia izeneko toki berberaz ari diren jakin ez badakit ere. Hona, bada, *Hauaunzia* formaren bilakaeraz pentsatzen dudaren laburpentxo:

7) habaunzia(h)a > habaunziaa > habaunzia > habaunzia

Lehenik beraz, artikulua gehitzen zaio, eta ondoren bi disimilazio "jasaten" ditu toponimoaren amaiera suertatzen den *-aa* bokal bilkurak.

Bi ondoriotan laburbil genezake azpiatal hau: batetik *-a + a > ea* disimilazioaren lehen lekukoak ekarri ditugu, eta baita *-ea > -ia* disimilazioa izan daiteke-

3. Hona Michelenak (1971[1987: 1143]) lekukotasun honetaz pentsatzen duena: "*Elhorzahea*, 1025, mod. *Elorza* (cf. nav. *Elorçe ibar* en 1095), está demasiado aislado para excluir la posibilidad de un error o errata".

narena. Dena den, ez nuke ataltxo hau bukatu nahi oroitarazi gabe bi adibide hauek izan direla aurkitu ditudan bakarrak, eta ezinbestekoa zaigun urritasun horren neurrian nahi nukeela uler dadin nire analisisa. Seguru aski, datu gehiagoren laguntzaz lan hipotesi hau baieztatu ala ukatu ahal izango litzateke.

3.1.2. a +a > ara. *Massoara* eta *Sagarzahara*

3.1.1. atalean agertu dudan datuen urritasunak bertan azaldutako gertakariak nire analisisa zalantzan jartzearainoko indarra izan bazezakeen, are oinarri ahulagoa izan lezakete *-ara* bukaeradun lekukotasunez esateko ditudanak. Ez dut, baina, lantxo honen aukera galdu nahi, horien gaineko analisi behin-behinekoa eskaintzeko, beti ere etorkizunean etorriko diren dokumentatuagoen zain. Has gaitezen, bada, lekukotasunak ekarriz:

- 8) a. *monte Massoa* (945), *Massoara* antroponimoa (991)⁴
- b. *Sagarzahara* (1089) Serranoren 1930eko edizioan.

Abia gaitezen *Massoara* hitzarekin. Ikusirik 945ean badugula *-ra* bukaera gabeko *Massoa*, zilegi izan daiteke 991eko lekukotasunean ageri den *-ara* hori morfema bereiz gisa aztertzea. Zein izan daitezke horretarako aukerak? Peterson (2007)ren ustez *Massoa* hori *basoa* euskal hitzarekin lotu daiteke; analisi horren arabera, *Massoa*-k bukaeran duen *-a* horrek artikulua behar luke. 991ko *-ara* bukaerari dagokionez, nire ustea bi aukeratan erdibitzen da:

- *-aa* bilkura ebazteko estrategia izatea, 3)c.n eman dudana.
- · Adlatibo kasua izatea, *-ra*. Toponimoetan leku kasuak agertzea arrunta da (cf. *Dax* < *de* + *aquis* duena oinarrian; latinezko kasu ablatiboa erromantzeko preposizio ablatiboarekin batera). Arazoa zera izan liteke, kasu hone-tan testuaren zentzuak argi uzten duela *Massoara* antroponimoa dela, ez toponimoa.

Jakina, beti geratzen da aukera *Massoara* berez hitz oso eta barne analisisirik onartzen ez duen determinaziozko morfemarik gabeko izena izatea. Zalantza hauek guztiak kontuan hartzekoak dira, Erdi Aroko datuekin ari garenean azaleratzen duten ziurgabetasuna agerian uzten baitute. Jo dezagun orain 8)b.ko adibidera, aipatu berri dudan ziurgabetasunaren adierazle gisa har daitekeena: *Sagarzahara* dugu berau, Serranoren 1930eko edizioaren arabera. Gauzei hurbilagotik begiratzean, baina, (uler bedi lekukotasunak jatorrizko iturrian kontsultatzen ditugunean) argi eta garbi ikus dezakegu ez dugula inolako *Sagarzahara* toponimorik, horren partez zalantzarik gabe irakurri baitaiteke XII. mende bukaerako agirian *Sagarzaheta* dela toponimoa. Lekukotasun honek, beraz, ez digu inolaz ere balio *-ara* bukaeradun horien eztabaidarako. Bi balio izan litzake,

4. Gorago aipatutako lanean (Manterola 2006) 1025eko *Larrahara*, *Bocara*, *Haiztara* aipatzen nituen. *Larrahara*-ren kasuan bi artikulua ditugu, beharbada? Balizko deklinabidean konposizio forma (*larra-*) agertzea arazo ikusten dut nik, halere. Beste bien gainean argia ezartzeko beldur naiz datu aski ez dugun.

dena den adibide, ustel honek: Donemiliaga Kukullako kartularioaren edizio berri baten beharra ohartaraztearena, batetik, eta gure lan honetan pluraleko artikuluek arduratuko den atalera salto egiten laguntzearena, bestetik.

3.2. Artikulu plurala: *-heta* > *-eta*

Aurreko lanetan aipatu izan ditudan 1025eko agiriko lekukotasunez gain (*Sansoheta*, *Sagassaheta*, *Erroheta*, *Azazaheta*...), badira Donemiliaga Kukullako kartularioan *-heta* amaiera aurkezten duten toponimoak; hona aurkitu ditudanak:

- 9) *Sagarzaheta* (1089), *Beguheta* (952), *Hareizelheta* (1106), *Larrinhetago* (1129)

Nire ustez *-eta* hasperendun hauek morfemaren erakusle jatorria salatzen dute. Ikusten dudanaren arabera, nire analisi berri honek analisi tradizionalak, morfemari jatorri latindarra aitortzen dionak baino hobeki azaltzen ditu hainbat gauza: besteak beste *-keta* aldaeratik hurbilago uzten gaituzte *-heta* amaiera duten lekukotasunek, *-heta/-keta* alternantzia dugularik, eta ez *-eta/-keta*. Seguru aski, gainera, hasierako hots horien txandatzea, *h/k* hotseña, alegia, beste nonbait ere ikus dezakegu, baldin eta gogoan hartzen baditugu Erdi Aroko superlatiboek lekukotasunak (1025eko *Arbelgoihen*); honen ondoan *azken* dugu, Michelenak (1961[1990-219]) superlatibo posibletzat jotzen duena. Honen arabera, *hen/ken* txandatzea izango genuke *heta/keta* txandatzea dugun testuinguru bereberetan, hau da, frikari ostean⁵. *-heta* atzikiari erakusle jatorria aitortzen diogunean beste zenbait arazo ere konpontze bidean ezartzen dugu: deklinabideko forma pluralak definitu zergatik diren ere errazago azaltzen da, izan ere D-elementuen gramatikalizazioaren hasierako faseetako ezaugarria baita definitutasunarena⁶.

Atal hau Azkueren aipamen batekin bukatu nahi nuke, Schuchardt-ek geroztik (1923[1947: 1946]) onartu izan den hipotesiaren aurka egiten baitu, nik ere egin nahi dudana bezala. Schuchardt-en arabera, *-eta* atzikiak jatorri arrotza du, latinezko *-etum* atziki kolektiboaren plurala, *-eta*, baitzen haren ustetan beronen oinarria. Lehenik toponimoetan hedatu zen atziki arrotza Schuchardt-en hipotesiaren arabera, eta ondoren deklinabidera zabaldu. Azkuek (1928: 212) aurkako bidea proposatzen du, deklinabidetik toponimiarakoa (beltza nirea da):

El hecho de que no se usa el artículo plural en Toponimia, pues en su lugar ha quedado como sufijo el infijo declinativo *eta* (**a fuerza de decir *arizketara noa***

5. Honekin batean beharbada *behe(n)* ere sar liteke; *be* izango litzateke CV egitura zaharra erakusten duen elementua, eta haren eskuinera ageri dena erakusle genitibo plurala, superlatibo gisa gramatikalizatu zena. Ikus Michelenak *be* honetaz dioena (1971[1987: 1147]).

6. Nire analisi honen arazo gisa honakoa aldarrika daiteke, *larrehederra* (945) bezalakoetan hasperena agertzearena hitz elkarketan. Ez dakit zenbateraino erabil daitekeen hau nire aurkako argudio gisa, *Hareizelheta* eta *Larrinhetago* adibide hasperendunak ditugunean...

voy a los robles, arizketatik nator vengo de los robles, ha quedado arizketa significando robledal) este hecho pudo haberme... [...]

Argi dago: Azkuarentzat deklinabidetik eratorritako atzizkia da toponimoetan aurkitzen dugun *-eta* hori. Horrek Schuchardt-en ikuspegia ahultzen du, honen hipotesiaren arabera atzizki horrek euskararen baitan toponimoetan egiten baititu lehen urratsak. Deklinabideak oinarria erakusleetan duela erabakirik, gainera, Schuchardt-ekin baino Azkuerekin egiten du bat gure proposamenak.

4. ONDORIOAK

Hiru puntutan laburbil dezakegu lantxo honen irakaspena: lehenik, ikusi dugu Erdi Aroan artikulua eragiten duen bokal bilkuretako *-aa > -ea* disimilazioa gertatzen zela. Aurkeztu ditugunak bilakabide fonologiko horren lehen lekukotasunak direlakoan gaude. Bigarrenik, *a + a > ara* bezalakoak Erdi Aroaren garairako identifikatzeko izan ditugun arazoak agerian utzi ditugu, auzi horretan ebazpen ziurrik eskaini gabe. Eta hirugarrenik *-heta* artikulua pluralaren erakusle jatorria aldarrikatu dugu, Erdi Aroan forma hasperendunak ditugula gogora ekarriz.

Azkenik, lan hau Erdi Aroko agirien edizio egokien aldarrikapena ere izan daiteke; halakoen zain gertatzen gara, Erdi Aroko agirien edizio berrien laguntzaz hain gai interesgarri eta emankorrean aurrera egitea errazagoa izango delakoan.

5. BIBLIOGRAFIA

- AZKUE, R. M. "El artículo y la epéntesis en la toponimia". In: *Euskera*, 9, 1928; 212-217.
- CIÉRVIDE, R. "Índice completo de topónimos citados en el Becerro Antiguo de Leyre (II)". In: *Fontes Linguae Vasconum*, 25, 1977; 117-152.
- COMPANY, C. "La extensión del artículo en el español medieval". In: *Romance Philology*, XLIV-4, 1991; 402-424.
- CYR, D. "Cross-linguistic quantification: definite articles vs demonstratives". In: *Language Sciences*, 15-3, 1993; 195-229.
- ETXEPARE, B. *Linguae Vasconum Primitiae*, Bilbo: Euskaltzaindia, 1545; 409. or. [1995(e)an berrargitaratua].
- GREENBERG, J. H. "How does a language acquire gender markers?" In: *Universals of Human Languages III*, Greenberg, J. H., Ferguson, J. and Moravcsik, E., 1978; 47-82.
- HIMMELMANN, N. P. "Articles". In: *Language Typology and Language Universals: An International Handbook 1*, Haspelmath, M., König, E., Oesterreicher, W. and Raible, W., *Handbooks of Linguistics and Communication Science* 20.1, 2001; 831-841.
- HUALDE, J. I. and I. GAMINDE. "Vowel interaction in Basque: a nearly exhaustive catalogue". In: *Studies in the Linguistic Sciences*, 28-1, 1998; 41-77.
- HUANG, S. "The emergence of a grammatical category definite article in spoken Chinese". In: *Journal of Pragmatics*, 31, 1999; 77-94.
- IRIGOYEN, A. "Erakusleez". In: *Euskera*, 24, 1978; 713-735.

- LAURY, R. "On the grammaticization of the definite article "se" in spoken Finnish". In: *Historical linguistics*, Andersen, H., *Current Issues in Linguistic Theory* 124, 1993; 239-250.
- MANTEROLA, J. "Artikuluaren bilakaera euskaraz: gramatikalizazio prozesu bat eta ondorio tipologikoak". *Argitaragabea*, 2005.
- MANTEROLA, J. "-a euskal artikulua definituaren gainean zenbait ohar". In: *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask*, Lakarra, J. A. and Hualde, J. I., *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" XL*, 2006; 651-676.
- MICHELENA, L. *Fonética histórica vasca*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1961 [1990]; 594. or.
- MICHELENA, L. "Notas lingüísticas a "Colección diplomática de Irache"". In: *Fontes Linguae Vasconum*, I, 1969; 1-59.
- MICHELENA, L. "Toponimia, léxico y gramática". In: *Fontes Linguae Vasconum*, 9, 1971; 241-267.
- MICHELENA, L. *Palabras y textos*. Bilbo: EHU, 1987; 493. or.
- MICHELENA, L. *Textos arcaicos vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, EHU, 1990 [1964]; 362. or.
- OIHENART, A. *Euskal atsotitzak eta neurtitzak*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1657; 535. or. [2003(e)an berrargitaratua].
- OÑEDERRA, M. L. "Fonologiaren mugak: alabea eta birjinak elezan". In: *Nerekin yaio nun. Txillardegi omenaldia*, Etxeberria, P. and Knörr, H., *IKER* 17, 2005; 379-397.
- PETERSON, D. "Onomástica y población en el antiguo condado de Castilla: la documentación conservada en San Millán". In: *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*. Gasteiz, 2007ko urriaren 8tik 11ra, 2007.
- PUTZU, I. "The definite article in Medieval Sardinian (Logudorese). Typology and diachrony". In: *Sprachtypologie und Universalien Forschung*, 2/3-58, 2005; 262-287.
- SCHUCHARDT, H. *Primitiae Linguae Vasconum*. Salamanca: Universidad de Salamanca, 1923; 88. or. [1947(e)an berrargitaratua].
- SERRANO, L. *Cartulario de San Millán de la Cogolla*. Madrid: Centro de Estudios Históricos, 1930; 562. or.

Oihenart

CUADERNOS DE LENGUA Y LITERATURA

OIHENART 23, 1-685, 2008, ISSN: 1137-4454



23

separata